

## urola erdia



Udane Juaristi azkoitiarrak irabazi du 2006eko Antzerki Topaketetako kartel lehiaketa. ARGAZKIA: K.F.

## UDANE JUARISTI

XXIV. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETETAKO KARTEL LEHIAKETAKO IRABAZLEA

# “Oraindik ezin dut sinetsi Azpeitiko kartel lehiaketako irabazlea naizenik”

**Udane Juaristi azkoitiarraren kartelak iragarriko ditu aurtengo XXIV. Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketak, herritarren eta epaimahaiaren botoei esker. 21 urteko gaztea Arte Ederrak ikasten ari da Leioan (Bizkaia) eta hau izan da lehiaketa batetara aurkezten den lehenengo aldia**

## KRISTINA FERNÁNDEZ

AZKOITIA. Azken momentuan egitako kartela zela eta irabazle izatearen albistea herrituta eta ilusio handiz hartu duela onartu du Udane Juaristik. Irabazle izateak, ate eta bide berriak irekiko dizkiola espero du azkoitiarrak, ondo baitaiki artearen munduan izen bat egitea oso zaila dela.

**Harrituta hartu al duzu irabazlea zarela jakiteak?**

Sorpresa handia izan da, ez nuen espero. Gainera aurkeztutako lan guztien erakusketan izan nintzen eta han zegoen maila ikusi nuen, ez nuela irabazteko aukerarik pentsatu nuen. Maila handiko lanak ikusi nituen, Photoshop programaz eginik asko. Nirea, berriz, eskuz eta azken momentuan egina zegoenez, irabazteko aukerarik ez nuela pentsatuz irten nintzen bertatik.

**Alde batetik herritarrek eta besteetik epaimahaiak egon dira. Dirudienek, denak ados egon dira zure lana aukeratzeko orduan.**

Satisfazio handia eman dit nire lanak alde guztietatik balorazio onak jaso dituela jakiteak. Egia

esan, oraindik ez dut sinesten irabazlea naizenik.

**Nola izan zenuen lehiaketaren berri?**

Ama etorri zitzaidan lehiaketaren berri ematen zuen paper batekin eta aurten parte hartuko nuela erabaki nuen. Azterketa garaian nengoen, lehiaketako azken egunak ziren eta saiatu egingo nintzela pentsatu nuen.

**Nola egin zenuen kartela? Zerbaitetan oinarritu al zinen?**

Ikasketentzako koadro bat egiten ari nintzen, lagun batek niri ateratako argazki bat marrazten ari nintzen eta frogak egiten hasi nintzen. Argazkia ideala zen kartela egiteko, kartoi mehe batean jarri nuen eta bat batean irten zitzaidan. Antzerkiko teloiak edo ohialak irekitzen ariko balira bezala agertzen dira eta atzean, berriz, aurpegi bat, antzerkigilearena. Emaitzarekin oso gustura gelditu nintzen.

**Irabazlea izateak, zure lana ezaguna egiteko aukera emango dizu. Ateak zabalduko zaizkizula uste al duzu?**

Gustatuko litzaidake behintzat. Oso zaila da mundu honetatik bizitzea eta aukera on bat izan daitekeela ikusten dut. Ea zertxobait laguntzen didan.

**Aurretik beste lehiaketaren batean parte hartu al duzu?**

Ez, hau izan da parte hartu dudana lehenengo lehiaketa. Ikaragarriko suertea izan dudala esan daiteke beraz. Animoak eta indar bereziak ematen ditu honek beste lehiaketa batzuetan parte hartu edo izena emateko.

**Jendearen karikaturak ere egiten dituzu. Nola egiten dituzu?**



Aurtengo Antzerki Topaketetako kartel irabazlea. ARGAZKIA: AZPEITIKO UDALA

Bai, halaxe da, baina ez dakit nola egiten ditudan, ezin izango nuke azaldu. Izan ere, gehiegikeriarik ez dut egiten. Argazki bat hartu eta marrazten hasten naiz, eta ez dakit nola, baina irten egiten dute. Hori bai, aurrez aurre ez dut sekula egiten, beti argazki baten bidez.

**Etorkizunean zer egin nahiko zenuke?**

Etorkizunik ez dut ikusten, baina honelako zerbait egitea gustatuko litzaidake. Lokal bat ireki eta bertan nire lanak egin eta saldu, beti ere pintura aldetik, pintura baitut arte munduko arlorik gustukoena. Koadro batzuk eginak ditut dagoneko, azkenaldian jendeak asko eskatu dizkit eta ea horrela jarrai dezakedan.

## AZKOITIA > El número premiado en el sorteo de Jóvenes del Tercer Mundo es el 0989

El sorteo efectuado por el grupo de Azkoitia Jóvenes del Tercer Mundo (JTM) ya tiene número ganador. Se trata del 0989. El poseedor del boleto con dicho número tendrá hasta el próximo 31 de julio para reclamar su premio. En caso de que no apareciera el ganador, los responsables de la rifa han señalado que el número de reserva será el 6054. El premio consiste en un lote de una camiseta firmada por el pelotari Aimar Olaizola II, un cuadro de Imanol Kerejeta y una cena en el restaurante azkoitiarra Joseba. Gracias a este sorteo, el grupo ha conseguido reunir cerca de 5.000 euros, los cuales irán destinados a los niños de las calles de Porto Novo en Benin. >K.F.

## Jose María Iruretagoiena y José Ignacio Treku exponen sus obras en Torre Zuri

José María Iruretagoiena y José Ignacio Treku exponen sus óleos y acuarelas en la sala azkoitiarra de Torre Zuri. La exposición, que albergará los trabajos de Iruretagoiena y Treku hasta el próximo 16 de julio, permanecerá abierto los sábados y domingos por la mañana de 12.00 a 14.00 horas y durante la semana sólo abrirá de tarde de 18.00 a 20.00 horas. >K.F.

## Matadeixe ofrecerá hoy la película franco-alemana 'Querelle du brest'

El centro Matadeixe de Azkoitia sigue con su ciclo de cine sobre la homosexualidad denominado *28 J Gaylesbotrans*. Hoy ofrecerá la película franco-alemana *Querelle du brest*. El filme, que dará comienzo a las 21.30 horas, cuenta la historia del marinero Querelle y de su poder de fascinación y de seducción sobre las personas con las que se cruza, gracias a una belleza y una personalidad a las que nadie puede resistirse. >K.F.

## AZPEITIA > 183 gazte ari dira udalekuetako bigarren txandan parte hartzen

Azpeitiko Udaleku Gazteria Sailak antolatutako udako ekintzak bigarren txandan hasi berri dira. Uztailaren 10etik 21era bitartean iraungo duten udalekueetan, 183 haur eta gazte ari dira parte hartzen. Udatxikin 65 haurrek eman dute izena, Udajolasen 42 ari dira parte hartzen, Udanmugin 33, Udanalain 19 eta, azkenik, gazetxoek Udabentura udalekueetan dabilta eta guztira 24k eman dute izena. Bi aste hauetan talde bakoitzak bere egitarau berezia izango du, baina azken festaren ospakizuna, uztailaren 21ean, hiru udaleku gazteenek batera egingo dute. >K.F.

## Nuarbeko erretiratuek bazkaria eta meza egingo dituzte igande honetan

Urtero bezala, Azpeitiko Nuarbeko erretiratuek bazkaria egingo dute Nahi Genduena elkartean, igande honetan bertan. Lehenago, ordea, meza nagusia izango dute 12.00etan. Parte hartu nahi duten pertsona guztiak 943 811955 telefono zenbakira deitu beharko dute izena emateko antolatzaileek adierazi dutenez. >K.F.